




INFORMAZIO ORRIA

ESKAILERA ERAMANGARRIAK

Eskaiera eramangarriak jarduera mota guztietan barra-barra erabiltzen diren lanerako elementuak dira. Eskaiera eramangarri batera igo edo handik jaisteko ekintza, edo eskaileraren gainean lan egitekoa erraza dela eta arriskurik ez duela ematen du, baina estatistikek erakusten dutenez, ez da hala. Hona hemen eskailerak erabiltzeko orduan jarraitu beharreko oinarritzko zenbait arau:

Erabili aurretik

- Egoera onean daudela ziurtatu, eta bermerik ematen ez dutenak baztertu egin behar dira.
- Ez da komeni 9 metrotik gorako luzera edukitzea.
- Eskailerek oinean ez irristatzeko elementuren bat eduki behar dute, adibidez: zapatak. Zoru motaren arabera aukeratu behar da elementua.
- Eskaileraren goiko aldea puntu finko bati eustea komeni da, eusteko kakoen bidez, adibidez.




Erabiltzen diren bitartean

- Ez erabili eraikitzean eman zaïen funtzioarekin zerikusirik ez duen beste edozein zereginetarako.
- Inklinazio egokiarekin ipini behar dira. Eskaileraren luzeraren eta berme-puntuko banaketaren arteko erlazioa 4tik 1ekoa izango da.
- Eskaileren hankak azalera sendo eta berdindu baten gainean jarri behar dira.
- Eskaiera sabai batera, aldamio batera, plataforma batera... igotzeko erabiltzen bada, eskaileraren goiko aldeak gutxienez metro bat gehiago eduki behar du. Igotzeko edo handik jaisteko, beti aurrez aurre jarri beharra dago, eskaiera-mailei (ez langaluzeei) eusteko bi eskuak erabiliz.
- Eskaileran zaudenean, ez saiatu eskaileraren grabitate zentroa eskaileratik kanpo kokatuko duten urruneko puntuetara iristen. Eskaiera behar bezainbeste aldiz mugitzea da berau erabiltzeko modu segurua.

Kontserbazioa

- Kontserbazio egoera ezin hobean mantendu behar dira. Horretarako, aldizkako azterketak egin behar dira eta baldintza egokietan ez daudenak erabiltzeari utzi behar zaio.
- Erabiltzen ez ditugunean, kontuz gorde behar dira; ez zoruan, toki hezeetan... abandonatuta utzi.



mutualia

Gizarte Segurantzaren Laneko Istripuen eta
Gaixotasun Profesionalekin Mutua, 2 zk

Prebentzio Saila

Ribera de Axpe, 28 ■ 48950 Erandio ■ T. 944 042 105 ■ F. 944 042 103
Henao, 26 ■ 48009 Bilbao ■ T. 944 252 519 ■ F. 944 242 441
Dr. Camino, 1 ■ 20034 Donostia ■ T. 943 440 526 ■ F. 943 430 153
Avda. de los Olmos, 1 ■ 01013 Gasteiz ■ T. 945 009 077 ■ F. 945 009 091
prevencion@mutualia.es